

4. DIRU-SARRERAK

Enpresaren trafikoaren xede diren zerbitzuak emateagatik eta/edo ondasunak saltzeagatik enpresak fakturatutako zenbatekoak, azpikontratazioz egindakoak barne.

Gure produktuaren gaineko diru-sarrerak hainbat tokitatik etorriko dira, denda fisikoetatik, web orritik edo beste enpresa batzuen bitartez. Denek partekatzen dituzte salmentak, hau da, gure diru-sarrera handienak salmentetatik etorriko dira.

Bestalde, bizikleta-markekin ere kolaborazioak egingo ditugu, gure produktua haienarekin batera ateratzeko eta, era berean, diru gehiago irabazteko eta sektorean ezagutzera emateko, marka oso ezagunen eskutik. Kolaborazioak gorabehera, gure diru-sarrerarik handienak salmentetatik datoz. Hortik aterako dugu etekin ekonomiko handiena, eta irabazten dugun diruarekin gure produktuaren teknologia eta kalitatea hobetzen inbertituko dugu, merkatuan handi egin ahal izateko.

Gure produktu finalaren prezioa 150€koa izango da eta Espainian urtean 150.000 txirrindulari daudenez gutxi gorabehera gure estimazioen arabera urtean 25.000 unidade salduko ditugu. Hortaz, urteko irabaziak 3.750.000€koak izango dira.

